


# HIRUGARREN GAIA: KONSTITUZIOA ARAU JURIDIKO BEZALA

## 1.KONSTITUZIOA: DEFINIZIOA, TIPOLOGIA, EGITURA ETA SAILKATZEKO IRIZPIDEAK

### 1.1.Definizioa

Konstituzioa estatuko ordenamendu juridikoaren arau nagusia da. Funtsean bi gauza egiten ditu: estatu botereak antolatu (finkatu/ordenatu) eta herritarren eskubideak aitortu. Eskubide horiek estatu botereek babestu, bultzatu... egin behar dituzte.



### 1.2.Tipologia

**-Arrazional araukorra:** Gure kontestu geo-politikoan nagusia dela esan dezakegu (Racional normativo). Bi ezaugarri ditu: 1- konstituzioa arau sistema bat da (ordenamendu juridikoaren parte da) idatzia dagoena, dokumentu bakarrean bilduta, gizarte hitzarmenaren ondorio dena, printzipio arrazionaletan oinarritua, araukorra eta erreformatzeko zurruna. 2- estatu liberalarekin bat egiten duen konstituzioaren ikuskera. Horrekin bat egiten du konstituzioak eskubideak eta estatu botereak finkatzen dituelako. AEB eta Frantziako tradizioetatik eratorriak, adibidez.

**-Tradizionalista historikoa:** Konstituzioa herri baten tradizioen emaitza eta printzipio arrazionaletan baino historian dago oinarriturik; konstituzio zuzenbidea ohituretatik dator eta ez da beharrezko izango idatzia egotea: Ingalaterrakoa, adibidez. Edmund Burke, frantziar iraultzari kritika.

**-Soziologiko marxista:** Hemen planteatuko da konstituzioa izan behar dela gizartearen izate errearen irudia. "Nolako jendarte dagoen arabera, horrela izan behar da konstituzioa". Konstituzio erreala (errealitate materialari erreferentzia) izango da; jendarte baten benetako faktore errearen isladapena. Beste gauza bat da konstituzio idatzia.

**-Autoritarioa:** Konstituzioa izango da nagusitasun egoeran dagoena ezarritako erabaki unilaterala. Diktaduretan adibidez. Pinochet, Txile.

### 1.3.Egitura

Konstituzio orok kontsideratzen dira 3 atal dituztela.

**-Atal ideologikoa:** Konstituzioaren helburuak, balore nagusiak, zein den subiranotasunaren jabea... arautzen du. Normalean hitzaurrearekin identifikatzen da atal hau.

**-Atal dogmatikoa:** Ordenamendu juridikoaren, konstituzioaren printzipioak, balore nagusiak, eskubide zein askatasunak; berriro biltzen dira.

**-Atal organikoa:** Estatu botereen antolaketa biltzen da. Hor barruan batetik, botereen organoak ezartzeko eta arautzeko arauak bildu eta bestetik, izendapenak egiteko arauak (adibidez, gobernuko presidentearen funtzioa, ministroak izendatzea dela, konstituzioak horretarako klabeak ematen ditu), estatu erak finkatzeko arauak ere agertzen dira (Espainiaren kasuan, autonomien estatua), salbuespen egoerak finkatzen dira eta konstituzioa erreformatzeko arauak ere finkatzen dira bertan.


### 1.4.Sailkatzeko irizpideak

**-Formaren arabera:** Konstituzio bat izan daiteke idatzizkoa ala ohiturazkoa eta ere izan daiteke laburra edo luzea (Espainiako konstituzioa ertaina dela esan ohi da). Hego Amerikako azken konstituzioak oso luzeak dira zeren eta, artikulua zenbat eta luzeagoak direnean orduan eta espazioa gutxiago uzten zaio interpretazioari.

**-Ezartzeko eraren arabera:** Emandako konstituzioa (constitución otorgada) (norbaitek ezarritako konstituzioa da; errege bat, diktadore bat...) Japoniakoa adibidez; konstituzio itundua ere izan daiteke (constitución pactada) nahiko tipikoa izan zen XIX. Mendean, non konstituzioak parlamentu eta erregearen artean egindako konstituzioak ziren; konstituzio demokratikoa, herriak ezartzen duena, botere konstituziogilearen fruitua.

**-Indarra edo jadanekotasunaren arabera:** Konstituzioak izan daitezke araukorrak edo nominalak. Nominala deitzen zaio eraginkorra ez den konstituzioari; onartua dago baina benetan ez du indar juridikorik. Araukorra deitzen zaio arau juridikoa duenari, normatiboa denari...

## 2.KONSTITUZIOAN KONTUTAN HARTZEKO HAINBAT ELEMENTU:



### 2.1. Botere konstituziogilea

Nork egiten du konstituzioa? Demokrazian herria. Zergatik? Subiranoa delako.

Botere konstituziogilea litzateke herri batek duen botere/ahalmen gorena bere buruari konstituzio bat emateko; hau da, bere buruari antolakuntza eta forma juridiko bat emateko.

Adituek diote botere konstituziogilea botere demokratikoa eta iraultzailea dela. Bockenforde horien artean.

Demokratikoa eta iraultzailea dela esaten da; batetik, historiarengatik eta bestetik, edukiarengatik.

Historiari erreparatzen badiogu, lehen konstituzioak XVIII. Mendeko iraultzetan jaio ziren, herriaren eskuetan egongo zen botere bezala eta iraganekiko haustura juridikoa.

Edukiari erreparatzen badiogu, adituek gaur egun esaten dute benetan herriaren esku dagoela botere demokratikoa delako eta ez dela iraultzaren sinbolo bat baina bai iraultza juridiko bat, iraganarekin haustura juridikoa supozatzen duelako.

**BOTERE KONSTITUZIOGILEAREN EZAUGARRIAK:**

1-Jatorrizkoa/prejuridikoa: botere konstituziogilea ez da konstituzio edo arau juridiko batetik eratortzen; baizik eta, herritik jaiotzen da.

2-Demokratikoa

3-Bakarra, banaezina eta ezin besterendukoa (inalienable); hau da, herriak ezin dio beste bateri eman

4-**Nagusia** (superior/supremo): nagusitasuna dauka baita indarrean dagoen konstituzioarekiko, ordenamendu juridiko guztiarekiko eta indarrean dauden botere eratuerekiko. “**Mugarik gabekoa**”, gaur egun kontsideratzen da oinarrizko mugak hauek direla: giza eskubideak, demokraziaren ideia bera eta nazioarteko tratatuak (ezin du hauen aurka egin).

5-Ohiz kanpokoa eta erabilera etenekoa. Botere konstituziogilea aktibatzen da konstituzioa aldatu nahi denean, hau da; soilik aktibatzen da indarrean dagoen sistemaren krisi larrien aurrean. Europan azkenetariko kasu horrelako bat Islandian eman zen. Botere konstituziogilea behin erabilia botere konstituziogilea lo geratzen da (desaktibatuta) eta berriz esnatzen da (aktibatu) konstituzioa berriz erreformatu behar denean.

Botere konstituziogilea eta botere eratuak oso ondo desberdinu behar dira. Botere eratuak hiru dira (legegilea, judiziala eta betearazlea) eta botere konstituziogilea bakarra da.

Botere konstituziogilea (Jatorrizkoa da, herritik dator; Botere/ahalmen politikoa, ez dute izaera juridikorik; mugarik gabekoa). Botere eratuak (Eratorkiak, konstituziotik eratortzen dira; izaera juridikoa daukate; botere mugatuak konstituzioak oso ondo nabarmentzen ditu bere mugak).

Doktrinaren parte batek sortu du – botere konstituziogile eratorria/eratusa (poder constituyente derivado/constituido). Hau sortu zen, konstituzioaren erreforma boterea.

## 2.2.Konstituzioaren interpretazioa

Arau juridiko guztiak interpretatu egin behar dira. Eta konstituzioa ere arau juridiko bat denez gero interpretatu behar da. Konstituzioa interpretatzean ezberdintasunak sortzen dira. Konstituzioa eta legea interpretatzean ezberdintasunak:

1-Legea ez du interpretazio pribilegiaturik, normalean esaten da herritarrek interpretatzen dituztela legeak eta epaileek interpretazio hori onetsi, egiaztatu eta gero finkatu egiten dutenak. Konstituzioan, aldiz hau ez da horrela, esaten da konstituzioak interpretazio pribilegiatuak dituela, eta esaten da; batetik botere legegileak politikoki interpretatzen duela konstituzioa legeak eginez eta auzitegi konstituzionala konstituzionaltasun kontrola interpretatzen du eta kontrolatzen du legegileak egindako lanak.

2-Interpretazioaren helburuak kasu batean edo bestean ezberdinak dira. Epaile batek legea interpretatzeko eskuen artean daukan kasu bat konpontzeko. Konstituzional auzitegiak aldiz, legegileak egindako konstituzioaren interpretazioa kontrolatzen du; orokorrean ikustea lege batek bat egiten duen konstituzioarekin edo ez.

3-Interpretazio juridikoaren eta interpretazio konstituzionalaren erregelak berdinak dira. Interpretatzeko arauturik oinarritzkoenak berdinak dira, kode zibilean finkatuta daudela (Espainiar zuzenbidean). Erregelak hauek dira:

- Hitzez-hitzeko interpretazioa egin behar da.
- Interpretazio sistematikoa (arauak ez dira sistematikoak, hau da; arau bakoitza interpretatu behar da ondoan dituen arauekin).
- Interpretazio historikoa (araua non eta noiz sortu zen).
- Teleologikoa: Arauaren helburuari erreparatzen dio. Arau bat interpretatzeko kontuan izan behar da zein helburu planteatu zen arau eratzean.
- Soziologikoa/Ebolutiboa: Erreparatzen dio jendartearen gauzatutako aldaketari.

\*Konstituzioa interpretatzeko printzipio eta mugak:

- Zuzenbidea politikaren muga da; baina botere legegilearen borondatea errespetatu behar da (botere publiko guztiak zuzenbidearen menpekoak dira; baina zuzenbidea ezin du botere legegilearen borondatea moztu).
- Konstituzio unitatearen printzipioa: konstituzioa da ordenamendu juridiko osoaren abiapuntua.
- Konkordantzia praktikokoaren printzipioa: eskubideen arteko gatazkak daudenean baloreen ponderazioa egin behar da.
- Zuzenketa funtzionaleko printzipioa: aintzat hartu behar da erakundeen arteko funtzio eta botereen banaketa.
- Konstituzioaren indar arau emailearen printzipioa: konstituzioak malgutasuna errazten du interpretatua izateko baina mugak ditu; arau juridiko bat baita.



## 2.3.Konstituzioaren erreforma

### Aldaketa konstituzional motak:

- 1- **Konstituzio erreforma:** Testu konstituzionalari zerbait aldatzeko prozesua da; gehitzeko, kentzeko edota moldatzeko eta beti ere konstituzioak ezartzen dituen mugak eta prozedurak errespetatuz.
- 2- **Mutazioa/mutazio konstituzionala:** Testu konstituzionala ukitu gabe; hau da, konstituzioaren letra bat aldatu gabe, aldaketa material bat gertatzen denean ematen da. Adibidez: autore askok esaten dute Europar Batasuneko zuzenbideak Espainiako konstituzioan aldaketa egin ez duela (idatziz) baina bai materialki (praktikan).

Konstituzio erreforman eta mutazio konstituzionalean EZ dago hausturarik.

- 3- **Konstituzioaren ezabapena** (suspensión de la constitución): Ez da konstituzioaren aldaketak egiten direla baizik eta konstituzioz aldatzen dela, aintzat hartu gabe konstituzio zaharrak ezartzen zituen prozedurak; baina bai mantentzen da botere konstituziogilearen jabe berbera (herria). Kasu hau normala da iraultza demokratikoak ematean; adibidez Hego Amerikan azken hamarkada hauetan: Venezuela.
- 4- **Suntsiketa** (Destrucción de la constitución): Konstituzio berri bat jartzen da mahai gainean, ez dira indarrean zeuden prozedurak errespetatzen eta gainera botere konstituziogilearen jabea aldatzen da. Adibidez: Txilen estatu kolpea eman eta botere konstituziogilea herritik militar talde batera aldatu zen.

### Erreforma motak:

Espainiar estatuaren kasuan nagusiki bi dira:

- Erreforma arrunta (Konstituzioaren 167.artikuluan arautua datorrena): Erreformak aurrera egin dezan ganbera bakoitzaren (kongresua eta senatua) hiru bosten babesa. Hiru bosten lortzen ez badira, aurreikusia dago batzorde misto bat eratzea (bi ganbaretako kideez osatua) arazoak egotekotan hauek konpontzeko. Hala ere, lortzen ez bada, senatuaren gehiengo absolutua (erdia gehi bat) eta kongresuaren bi heren lortzen badira aurrera egin dezake. Ez da erreferendunik behar erreforma ateratzeko baina kongresu edo senatuko kideen %10 eskatzen badu erreferenduma egin beharko da.
- Erabateko berrikuspina (Konstituzioaren 168.artikuluan arautua datorrena): Prozedura hau aplikatzen da konstituzioaren berrikuspen orokor bat egin nahi denean edo erreformak elementu batzuei eragiten bazaie (atariko tituluari eragiten badio, lehen tituluko bigarren kapituluaren lehen atalari eragiten badio (oinarrizko eskubideak daude araututa bertan) eta bigarren tituluari eragiten badio ere (Koroa arautu egiten du)). Prozedura honek dio:

1. Ekimena onetsi behar izango da bi ganberen (kongresu eta senatua) bi herenen botoak lortuta.
2. Ganberak (kongresua eta senatua) desegin behar izango dira.
3. Hauteskundeak (kongresu eta senatu berriak hautatzeko) eta gorte berri horiek egitasmoa berriz azertu, ikertu, eztabaidatu eta bozkatu egin beharko dute eta berriz ere ekimena onesteko bi ganberen (kongresua eta senatua) bozken bi heren lortu beharko dira.
4. Erreferenduma

Konstituzioaren berrikuspena ezin dio konstituzioaren esentziari kontra egin nahiz eta prozedura ondo jarraitu; hau da, ezingo litzateke diktadura organiko eta estatu antisozial batera pasatu, giza eskubideak kendu... (Super konstituzioa)



## 2.4. Konstituzionaltasun kontrola

Konstituzioaren ohiko berme bat da; aldiz, konstituzioaren erreforma konstituzioaren ez-ohiko berme bat da.

Funtsezko elementu bat da konstituzioa benetan konstituzioa arau juridikogoren izan dadin.

Zertan datza konstituzionaltasun kontrola? Mekanismo bat da, aukera ematen duena konstituzioaren aurka dagoen arau bat ordenamendu juridikoa kanporatzeko. Kontrol bi mota daude:

- Konstituzionaltasun kontrol difusoa: AEB.
  - 1- Edozein epaiek egin dezake konstituzionalitate kontrola.
  - 2- Kontrol intzidentala da (epailea kontrol hori egiten du kasu konkretu bat eskuartean duenean).
  - 3- Jurisprudentzia sortzen du eta atzeraeragina (retroactividad) dauka.
  
- Konstituzionaltasun kontrol kontzentratua: Europa.

XX. mende hasieran sortzen da, gutxi gorabehera I. Mundu Gerra amaitzerakoan. Honen amaierarekin batera Europako herrialde batzuetan prozesu konstituziogilea abiatuko da eta prozesu horietan konstituzio bermeen arazoak mahai gainean jarriko dira, adibidez: nola bermatzen dira oinarrizko eskubideak, minorien babesak... Eztabaida horien ondorioz sortzen dira Europan lehen Auzitegi Konstituzionalak (helburua; Konstituzioa defendatzea). Ezaugarriak:

  - 1- Kontrola auzitegi zehatz baten esku geratzen da (Auzitegi Konstituzionala).
  - 2- Soilik aldeek hala eskatuta azter dezake Auzitegi Konstituzionalak arau baten konstituzionalitatea.
  - 3- Auzitegi Konstituzionalistaenarengana jo dezakete soilik botere judizialak eta Estatuko organo zehatz batzuek; herritarrek ez dute aukerarik Auzitegi Konstituzionalarengana jotzeko.
    - Botere judizialaren kasuan, konstituzionaltasun galdera eginez planteatu.
    - Estatu organoek konstituzio kontrakotasun elegitea.
  - 4- Auzitegi Konstituzionalaren epaiek lege indarra dute, ezin dute legerik eman baina bai legea indargabetu. Horregatik, "legegile negatiboa" esan ohi da.

